

Jose Ignazio Ansorena

Mikel guria

M

*ikel, Mikel, Mikel guria,
zaindu, zaindu, Euskal Herria.*

Horrelaxe kantatzen genuen mutil koskorretan, esaten ari ginenaz guztiz jabetzen ez ginelarik. San Migel goiangeruari erregu egiten baikenion gure herria zain zezan. Eguneko Euskal Herri laikoan askok horixe bera kantatuko zioten abendu hasieran joan zitzaigun Mikel Laboa artista eta sortzaileari.

Mikel Laboaren heriotza, lanbroak estali gintuen egun luzeen amaiera aldera, astindua izan da euskaldun askorentzat. Horrelako emozio sortzaile handi batek, alde egiten duenean, umezurtz ugariak uzten baititu. Emozio horiek utzi dizkigu ondare. *Txoria txori* abestiak esaterako, milaka aldiz abestuta ere, badu, bere laburrean, zirrara eragiteko ahalmen ahitu ezina.

Donostiako Aurrera jabetxe zaharrean, Juanita Mendiola –Goenaga Mendiola artista familiarren ama– zenak ohitura berezia zuen: paperezko mahai zapietan olerkiak inprimarazten zituen, bezeroen gozagarri. Francoren garaietan horrek bazuen euskaltzaletasun aldarri zentzua eta matxinada txikiaren ukitua. Horregatik biltzen zen, besteak beste, hainbeste jende euskaldun taberna hartan. 1969. urteko egun batean, Marisol Bastidak, Mikel Laboaren emazteak, Joxan Artzeren poema ikusi zuen mahai-zapi horietako batean. Etxera eramane eta Mikeli aipatu zion abesti batarako egokia zela. Harrigarria, Joxan Artze adiskide izanik, *Ez dok amairu* taldeko jardunkide, zeharkako bide horretatik ezagutu zuen poema Mikelek. Berehala doinuak sortzeari ekin zion.

Haize begoa-k ere badu jatorrian bitxikeria. Doinuua Philippe Oihanburuk sortua da Aldudeetako herrixka galdu batean Bigarren Gerrate Mundialaren garaietan. Han zen Oihanburu, naziengandik ihesi, erretore etxean gorderik. Emakume judu batekin maiteminduta, bertan zegoen piano zahar batean doi-doi bi hatz erabiliz doinu hunkigarria josi zuen. Urte batzuk



JUDIT FERNÁNDEZ

geroago, Etorki dantza taldeko zuzendari zela, *pas de deux* baten koreografia garatu zuen aire horretan eta taldearen ikuskizunetan eskaintzen hasi. Horietako batean Telesforo Monzonek, doinu eta dantzaren xarmaz liluratuta, hitzak egokitzea deliberratu zuen: *Haize begoa, gau epela, ilargiaren argi...* Kate honi Mikel Laboak jarri zion errematea. Grabatu egin zuen eta euskal jendeari oparitu.

* * *

Euskal Telebistan *Funtzioa* saioa egiten genuen garaietan, noizbait Mikelekin topatu eta gurera etortzeko gonbitea eginda, aitortu zigun bere gogo bizietako bat zela, pailazo jantzita –edo bihurtuta–, publikoaren aurrean agertzea eta pailazokeriak egitea. Berehala erantzun genion: nahi zuenean, guretzat ohorea izango zela. Zoritzarrez kontu bat edo beste katramilatuz joan ziren eta ez zen burutu ahal izan. Mikel artista eta pertsona ulertzeko hari garrantzitsua da hau, nire ustez, nola maite zituen pailazoak: Charles Chaplin, Buster Keaton... Bera ere pailazokume sentitzen zelarik.

Xabier Leteren *Izarren bautsa* bertsionatu zuenean, pailazokumetzaren goia jo zuela egingo nuke:

*Izarren bautsa egun batean bilakatu
zen bizigai...*

*Eta indarrak ongi errotuz, gure sustraiak
lurrari lotuz...*

*Saia gaitezen ikusten: amets eroak
bazterturikan...*

*Gu sortu ginen enbor beretik s
ortuko dira besteak...*

Nolako lokarriak sortzen diren kultura baten baitan. Nolako lokarriek sortzen duten kultura baita.

*Mikel biak (goiaingerna eta pailazokumea)
Juanita, Marisol, Joxan, Philippe, Telesforo,
Xabier guriak, zaindu, zaindu
Euskal Herriak. ■*

ETBn *Funtzioa* saioa egiten genuen garaietan, Mikelek aitortu zigun bere gogo bizietako bat, pailazo jantzita, publikoaren aurrean agertzea eta pailazokeriak egitea zela